


Literatur Lehiaketa

Joxe Mari Iparragirre BHI 2016ko udaberria

OINARRIAK

1. Lehiaketa honetan gure Ikastetxeko edonork har dezake parte.
2. Parte hartzaileak hiru mailatan bereiziko dira:
 - **A maila:** DBHko 1. zikloko ikasleak.
 - **B maila:** DBHko 2. zikloko ikasleak.
 - **C maila:** Batxilergo eta Heziketa Zikloko ikasleak.Eta lanak bi arlotakoak izango dira:
 - **Prosa.**
 - **Poesia.**
3. Lanak euskaraz idatzita egon behar dira.
4. **DBH:** Poesian, gaia librea izango da eta, gutxienez, 50 lerro izan beharko ditu. Prosan gaia librea izango da eta, gutxienez, orrialde bat izan beharko du.
BAT: Poesian gaia librea izango da eta, gutxienez, 50 lerro izan beharko ditu. Prosan, gaia librea izango da eta, gutxienez, orrialde eta erdi izango du.
5. Parte hartzaile bakoitzak arloko lan bana aurkeztu ahal izango du.
6. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, soilik izenburua, goitizena, maila eta arloa. Egilearen datuak horretarako prestatutako orrian idatziko dira eta irakasleari emango dio. **2016ko martxoaren 18a, osteguna, izango da lanak aurkezteko azkeneko eguna.**
7. Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira.
8. Mailako eta arloko hiruna sari izango dira:
 - 50 € irabazlearentzat,
 - 30 € bigarrenarentzat,
 - 20 € hirugarrenarentzat.
9. Sari-ematea apirilaren 22an egingo da.
10. Lanen kalitatea dela eta, Epaimahaiak (HNB eta ikastetxeko hainbat irakasle) hala erabakiz gero, sarietako bat eman gabe gera daiteke.
11. Saritutako lanak *Hor konpon!* aldizkariaren udaberriko alean argitaratuko dira.



Urretxun, 2016ko otsailaren 15ean.

Hnb